

ASIAGUNEAREN ARAUDIA

Asiagunea 4 eta 13 urteko neska-mutilentzako zerbitzua da.

Asiaguneko ohiko ordutegia: 16:30 – 19:00 (astelehenetik barikura arte)

Behar moduan izena emonda daukien erabiltzaileek baino ezin izango dabez erabili Asiaguneko zerbitzua eta beste instalazioak. Asiagune zerbitzuan izena emoten daberen haurren arduradunek honako betebeharrak bete beharko dabez:

- a) Eskaera-orria behar bezala betetea jagokon epean.
- b) Umeak zelanbaiteko zainketa berezirik behar badau, haren barri emotea Asiagune arduradunei.

Segurtasun errazoiengatik Asiaguneko gehienezko aforoa 25 umekoa da, hezitzaile bakarra dagoanean aforoa 18ra murrizten da. Aforoa beteten denean ezin izango da ume gehiago sartu.

- Asiagunera datozen umeek askatasun osoa daukie barrura sartzeko baita kanpora jolasten urteteko be.

1. GURASOAK AISIGUNEAN ZELAN JOKATU?.

- Asiagunea hezitzaile bik zuzendutako gizarte eta hezkuntza gunea da eta bertan jarduera ezbardinak garatuko dira egunero. Hori dala eta, **gurasook gune hori errespetatu behar dogu eta atean itxaron beharko deutsegu geure seme-alabei.**
Kanpoan itxaroten zagozan bitartean mesedez, isilik egon.
- Asiagunetik urten baino lehenago jostailuak batu egin beharko dira. Horretarako, gurasoek aurretiaz kontuan hartu beharko dabe batzeko behar dan denbora hori.
- Asiagunearen barruko arazoak hezitzaileen eta umeen ardura izango dira, aisiagunean konponduko dira.

2. AISIAGUNEAREN BARRUAN

- Asiagunera galtzerdiekin sartu behar gara.
- Asiagunearen barruan ezin dugu jan.
- Asiagunean daukaguzan jostailuak ondo zaindu eta erabiliko ditugu, erabilera desegokia eginez gero, konpondu eta ordaindu beharko dira.
- Arduradunak eta lagunak errespetatu beharko doguz.
- Arauok ez beteteak aldi baterako zerbitzu honetatik kanpo geratzea dakar.